



**smartlog**  
Una nueva logística

bilstein groupek  
bere arrakastari  
bultzada eman  
dio, Smartlogen  
AutoStore sistema  
berritzailearekin

## **bilsteingroup**<sup>®</sup>

enpresa liderra da munduan, automobilentzako eta ibilgailu industrialentzako kalitate handiko ordeko piezen fabrikazioan eta banaketan. Presentzia sendoa dauka merkatuan, eta 175 urtetik gorako historia. Hala, ondo irabazita dauka automobilen eta ibilgailu industrialen ordeko piezen industrian munduko liderra izatearen aitortpena.

## **bilsteingroup**<sup>®</sup>

bere produktuen bikaintasunagatik ez ezik, ordeko piezen industrian berrikuntzarekin eta etengabeko hobekuntzarekin duen konpromisoagatik ere nabarmentzen da. Kalitateari, bezeroaren gogobetetzeari eta merkatuaren behar aldakorretara egokitzeari buruzko ikuspegi horrek merkatuan lider gisa duen posizioa sendotu du.

Konponketarako soluzioen aukera zabala eskaintzen du ibilgailu mota guztientzat, nola turismoen sektorean, hala ibilgailu industrialen sektorean. Enpresak ordeko piezak hornitzen dizkie Espainiako ordeko piezen banatzaile nagusiei, eta 100.000 erreferentziatik gora biltzen dituen katalogoa dauka.

Zaragozan duen filiala, taldeko puntakoenetako bat, ordeko piezak nazio mailan banatzeaz arduratzen da, eta, aldi berean, marka askotako denda eta tailerrak hornitzen dituzten ordeko piezen enpresei ematen die arreta.





## Erronka logistikoak

Enpresak erronka logistiko esanguratsuei egin behar izaten zien aurre, eragiketen konplexutasuna zela eta. Biltegi ratze lanak eta eskaeren prestaketa optimizatzeke, eraginkortasuna hobetzeko eta etorkizuneko hazkundera modu jasangarrían maneiatzeko irtenbide bat behar zuen.

Bi urtean aztertzen aritu ondoren eta analisi sakon bat egin ondoren, espazioari dagokionez erronka posibleak identifikatu ziren, **bilstein groupek** bere instalazio zaharretatik gaur egun Plaza industrialdean duen kokapenera igarotzean lortutako esperientzian oinarrituta. Azterketa hori funtsezko hiru zutabetan oinarritu zen. Lehenik eta behin, merkatuari buruz duten ezagutza sakona aprobe txatu zuten aukera estrategikoak identifikatzeko eta bezeroaren beharrak ulertzeko. Bigarrenik, hainbat aukera ebaluatu ziren, egungo lursaila hedatzeko aukera barne. Hirugarren zutabearen ardatza taldearen behar logistikoak izan ziren, beste filial batzuetara esporta daitekeen eredu bat aukeratuko zela ziurtatuta.

Eredu operatibo berria errendimendu betean dabilen honetan, biltegiaren hobekuntzarekin jarraitzea planteatzen da, merkatuaren eskaeretara eta etorkizunerako proiektio strategikoetara egokitzen eta eboluzionatzen jarraitzeko.





## Smartlogen soluzio integrala

Smartlogek soluzio logistiko integral bat ekarri du, AutoStore sistema txertatzen duena: 18 robot eta 22.000 kubetarekin, sarrerako 2 porturekin eta irteerako 4 porturekin, bai eta eraginkortasuna maximizatzeko eta akatsik gabeko eragikera bat lortzeko elkarlanean ari diren beste teknologia eta osagai batzuekin ere.

Era berean, biltegiak eta datuak kudeatzeko Galys software suite berria implementatu du, eta etengabeko laguntza eskaintzen du, prestakuntza eta aholkularitza emateko, eta soluzioa modu optimoan funtzionatzen ari dela ziurtatzeko.

**AutoStore**, hain zuzen, eskaerak biltegitratzeko eta prestatzeko sistema robotizatu bat da, kuboko biltegitratze batean oinarritua. Askotariko produktuak biltegitratu eta picking zereginak modu eraginkorren kudeatu ahal izango dira; tartean, mugimendu azkar zein geldokook, eskaera bolumen handia dutenak eta biltegitratze dentsitate handiko beharrak dituztenak.

Emandako soluzioak azken belaunaldiko robotak ditu, eskariak prozesatzeko, eskatutako produktuak dituzten ontziak aurkitzeko, eta langileen lanpostuetara garraiatzeko, haiek amaierako prestaketa egin dezaten.

Eragikera logistikoaren eraginkortasun are handiagoa lortzeko, Smartlogek produktuaren bilketaren egiaztapen bikoitza duen sistema elektroniko batekin eta "put log light" sistema batekin osatu du teknologia hori. Sistema horrek langilea gidatzen du produktua kubetatik atera eta utzi behar den lekuan jartzeko garaian. Horri esker, askoz eragikera eraginkorragoa eta akatsik gabekoa lor daiteke.



## Galys: Logistikaren optimizazioa eta erabateko kontrola

Biltegiak kudeatzeko software bat da Galys, eta modu ezin hobean integratzen da lehenik dauden prozesuekin. Hala, adimena gehitzen die bezeroaren jardura logistikoaren fase guztiei eta eragikera logistikoaren aginte zentro gisa jarduten du.

Software honek enpresaren aktibo guztiak kudeatzen ditu, aukera ematen baitu bere eragikera tradizionalenak (WMS) prozesu automatizatuekin (WCS) elkarlan plataforma baten bidez interkonektatzeko.





## Smartlog, mugarik gabe laguntzen

Bere soluzio logistikoa erabat ezartzeko bidean, **bilstein groupek** konfiantza izan du Smartlogengan, etenik gabe lagundu eta etengabeko euskarria eman diezaion. Horrek bermatzen du soluzioa une oro modu optimoan funtzionatzen ari dela.

Laguntza hori konponketa eta mantentze kontratu batean gauzatzen da (R&M izenekoa), eta horren barruan sartzen da sistema bere bizi ziklo osoan funtzionamenduan egon dadin beharrezkoak diren funtsezko ordezeko piezak hornitzea. Ikuspegi holistiko horrek, eraginkortasuna optimizatzeaz gain, Zaragozako **bilstein grouperako** soluzioaren iraunkortasuna eta etengabeko arrakasta ere ziurtatzen ditu.



## Etorkizuneko hazkundeak babesteko prest

Smartlogek emandako soluzioak, AutoStore sistema robotizatua eta Galys biltegiak kudeatzeko softwarea integratzen dituenak, eraldaketa osoa ekarri du **bilstein groupek** Zaragozan dituen eragikera logistikoetan. Eraldaketa horrek onura nabarmen batzuk ekarri ditu:

- **Produktibitatearen hazkundera.** Zaragozako eragikera logistikoen produktibitatea nabarmen handitu da, eta %40 aurreztu da eskaeren prestaketan eta biltegiratze espazioan. Funtsezko hobekuntza horri esker, enpresak modu eraginkorrean ase ditzake bere bezeroen eskaerak. AutoStoreri esker, eraginkortasun eta azkartasun handiagoa lortzen da bezeroentzat, zeintzuk zerbitzu ratio oso altuekin artatzen diren.
- **Espazioaren optimizazioa.** Biltegiko espazioa optimizatzeak ekarri du **bilstein groupek** bere espazioa ahalik eta gehien aprobetxatu ahal izan izatea, biltegi berriak eraikitze beharra murriztuz eta baliabideak aurreztuz. Sistema malgu eta eskalagarri horrek lortu du espazio askoz txikiagoan (450 m<sup>2</sup> soilik) stockean dituzten produktuen %80 ere biltegiratu ahal izatea. Hala, hobekuntzak sumatu dira hainbat alderditan.
- **Etorkizunerako prestaketa.** Soluzioak 2025era arte %35eko hazkunde zenbatetsia izateko ahalmena ematen du, eta horrek bermatzen du **bilstein groupek** biltegi berriak eraiki behar izan gabe hedatu ahal izatea, eta horrekin lotutako kostuak murriztea.



- **Jasangarritasun hobetua.** AutoStore sistemarekin automatizatutako prozesuak eraginkortasuna eta produktibitatea bultzatzeaz gain, jasangarritasunean ere eragin positiboa du, baliabideen erabilera optimizatu, pertsonen ergonomía eta erosotasuna eman, energiaren kontsumoa minimizatu eta logistikan akatsak murriztu egiten baititu.
- **Bezeroaren esperientzia hobetzea.** Smartlog soluzioek ere eragin zuzena izan dute bezeroari emandako zerbitzuaren kalitatean. Akatsen minimizazioak eta eskaera zein entrega egokien kudeaketa zehatzak bezeroaren gogobetetasuna handitu eta harreman komertzialak indartu ditu.








**bilstein groupek** Espainian duen zuzendari nagusiak, Juan Lanajak, honako hau adierazi du: “Talde barruan aitzindariak izango gara. *AutoStore*ren proba pilotua Zaragozan egiten ari gara, eta gainerako filialetan ere biltegiak berdin muntatzeko asmoa dugu. Espazioaren arazoa konpontzea eta produktibitatea handitzea biltegi berriak eraiki beharrik gabe hedatzen jarraitzeko bermea da guretzat, eta, aldi berean, horrekin lotutako kostuak nabarmen murrizten ditugu”.



Eta Smartlog Taldeko CEOk, Xabier Zubizarretak, hauxe gehitu du: “Harro gaude **bilstein groupeko** bazkide logistiko bihurtzeaz, haien hazkunde jasangarrian laguntzeaz, eta erabilgarritasunari, eraginkortasunari eta espazioak optimizatzeari dagokienez balio erantsi handia emateaz. Haren alboan jarraituko dugu, aurre egin beharreko erronka guztiei aurre egin diezaien, eta soluziorako inbertsioa epe luzera jasangarria izango dela eta **bilstein groupi** etekinak ematen jarraituko duela ziurtatzeko”.



# Zergatik Smartlog

## Helburua

### **Pertsonengan oinarritutako logistika jasangarri eta erresiliente berri bat sortzea.**

“Pertsonen ongizatean oinarritutako logistika jasangarri eta erresiliente bat sortzeak ikuspegi logistiko bat diseinatzea eta garatzea esan nahi du, efizientzia eta errentagarritasuna ez ezik, bizi-kalitatean eragin positiboa ere kontuan hartuko duena. Ingurumenaren iraunkortasuna, langileen segurtasuna, bezeroen erosotasuna eta enpresen erantzukizun soziala bezalako alderdiak kontuan hartzea dakar. Azken batean, enpresa-helburuen eta gizartearen onuraren arteko oreka lehenestea da helburua.

## Balio-proposamena

Smartlogen, teknologia berritzaileenekin irtenbide eta zerbitzu intralogistiko paregabeak eskaintzen ditugu. Gure helburua zerbitzu pertsonalizatu, lokala eta mugagabea eskaintzea da, eta prozesuak jasangarriagoak, adimentsuagoak eta erresistenteagoak izatea, enpresa-arrakasta lortzen laguntzeko.







## Harremanetan jarri gurekin

### **Mikel Aguado**

Growth Marketing Manager

t. +34 943 841 899

m. +34 663 392 767

e. [maguado@smartlog-group.com](mailto:maguado@smartlog-group.com)

[www.smartlog-group.com](http://www.smartlog-group.com)